

3. Bota bertsoa

Ea zer kontatzen diguten unitate honetako bertsoek!

- 1 Entzun arretaz, eta unitatearen nondik norakoak ezagutuko dituzu.
Ea gustukoa duzun!

1

Hozkailua, txorrota
ontzia, labea...
Laborategi bat da
gure

Gure ur, esne, zuku
edo jogurtean
magia gertatzen da
begien aurrean.

*Oraindik ez ulertuagatik
Baietz asmatu nola ta zergatik*

2

Arrautza bat ontzian
uretan
Irakiten hasi ta...
ahaztu egin dut!

Jada ez dago urik!
Hustu da zeharo!
Ta begira, arrautza
gogor-gogor dago!

*Oraindik ez ulertuagatik
Baietz asmatu nola ta zergatik*

3

Laranja zukuari
ipini
izozkailuan sartu
ta hoztu dadila.

Izozki bat da orain;
lehen laranja-ura...
Ez dut bizkor jan eta
berriro urtu da!

*Oraindik ez ulertuagatik
Baietz asmatu nola ta zergatik*

- 4** Olio ta ura
botata
Haserre dirudite...
Bereizi egin dira!

Aldiz azukre pixkat
botata esnera
desagertu egin da
zergatik ote da!

*Oraindik ez ulertuagatik
Baietz asmatu nola ta zergatik*

- 5** Nahiz ta porru-patatak
irakinarazi
porruak ta patatak
ez dira!

Nahasi ez diren arren
uren bor-borretan,
magiak segi(tu)ko du
gure sabeletan...

*Oraindik ez ulertuagatik
Baietz asmatu nola ta zergatik*

- 6** Azukre, esne, porru,
arrautza,
Esperimentu onena
jatea da noski!

Eta jaten duguna
magia benetan!
Haragi bihurtzen da
gure gorputzetan.

*Oraindik ez ulertuagatik
Baietz asmatu nola ta zergatik*

Miren Artetxe Sarasola
Doinua: *Ai zapotxin*

- 2** Ohartuko zinen bertsoetako hitz batzuk desagertu egin direla.
Hemen dituzu nahasian. Idatz itzazu dagokien tokian.

a izozki

b nahasi

c makila

d sukaldea

e pluk-pluk-pluk

f ontzira